



Bizkaiak bihar aktibatuko 12 urtetik beherakoentzako doakotasuna lurraldeko garraio publikoan.

Operadore guztien sistema teknikoa azkar egokitzea lortu denez, astebete lehenago jar daiteke martxan hobari hori.

Orain arte, 12 urtetik beherako 18.156 umek daukate jada barik txartel pertsonalizatua.

Bizkaia, 2025eko urtarrilaren 29a.

Bihartik aurrera, Bizkaiko garraio publikoa doakoa izango da 12 urtetik beherakoentzat, operadoreetan egokitzapen teknikoa egiteko proba guztiak gainditu ondoren eta neurria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean gaur argitaratu ondoren. Izan ere, Metro Bilbaok, Bizkaibusek, EuskoTrenek, Renfek eta Bilbobusek lan handia egin dute neurria ezartzeko aurrez ikusitako data aurreratzeko, otsailaren lehen astean ezartzekoa baitzen.

Roberto Muñoz Bizkaiko Garraio Partzuergoko zuzendari kudeatzaileak azaldu duenez, areagotu egin dituzte probak eta egokitzapen teknikoa, garraio publikoa gutxienez astebete lehenago izan dadin doakoa 12 urtetik beherakoentzat. Esan duenez, berri ona da garraio publikoaren erabilera sustatzen duelako. Errealitate hori lortzeko beste urrats bat da.

Orain arte, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren zifren arabera, 18.156 adingabek dute jada barik txartel pertsonalizatua; haietatik 10.378k lehendik zuten titulua, eta 7.778k orain eskatu dute, Bizkaiko Garraio Partzuergoak urtarrilaren 7an doakotasuna iragarri eta gero.

12 urtetik beherakoentzako barik txartel pertsonalizatua CTBren, Metro Bilbaoren, Bizkaibusen, EuskoTrenen, Renferen edo Bilbobusen aurrez aurreko arretarako bulegoetan eska daiteke. Txartela izapidetzeko, tutore batek adingabearen argazki bat erantsi behar du, NANarekin edo familia-liburuarekin batera.

Joan den abenduaren 23an, Euskadiko Garraio Agintaritzaren bileran, Bizkaiko Foru Aldundia prest agertu zen neurri hori bultzatzeko. Hori dela eta, urtarrilaren 7an, CTBk Kontseiluaren ezohiko eta premiazko bilera egin zuen. Bilera horretan, erabakia hartu, eta izapidetzen hasi zen.

Jendaurrean jartzeko bost eguneko epea bete ondoren, eta legezko izapideak gainditu eta sistema teknikoak egokitu ondoren, azkenean bihartik –osteguna– aurrera izango da doakoa zerbitzua.